

Euskera erro eta gara

Bittor Kapanaga



Lan guztiak I

Euskaldunon
hizkuntza eta ikuskera

Bittor Kapanaga

Lan guztiak I

Euskaldunon hizkuntza eta ikuskera

Edizio-lanak: Juan Martin Elexpuru

Aurre lanak: Enrike Alaña, Patxi Alaña, Aintzane Lazkano,
Gontzal Mendibil, Jose Mari Ugaldea 'Willy'

Egilea: Bittor Kapanaga

Argitaratzailea: Gerediaga Elkartea

Edizio-lanak: Juan Martin Elexpuru

Azaleko eta portadatxoetako argazkiak: Maritxu Goikoetxea

Azala: Gertu Inprimategia, Oñati

Argazkiak: Kapanaga-Alaña familia, Maritxu Goikoetxea, Gontzal Mendibil, Euskeraren Jatorria, Juan San Martin Fondoa, Gipuzkoa Net, Wikipedia

Solapako argazkia: Marisol Ramirez/ Argazki Press

Argitaratze data: 2014ko urria

Maketazioa eta inprimaketa: Gertu Inprimategia, Oñati

© Bittor Kapanagaren familia

© Gerediaga Elkartea

© -cc-by-sa (Creativ Commons)


Lege Gordailua: SS-1325-2014

ISBN: 978-84-940017-9-6

Bittor Kapanaga Elorza (1925-2011)

Biografia antzekoa

Juan Martin Elexpuru



1.- Bizitzako ibilbidea

Haurtzaroa, gerratea eta eskola

Otxandion jaio zen Urigoiena kaleko 37 zenbakidun kale-baserrian, 1925eko urriaren 15ean. Aita otxandiarra eta ama Berrizkoa. Hiru neba-arreba ziren, Santi zaharrena, Bittor erdikoa eta Lurdes gazteena. Zortzi urte zituela aita hil zitzaien apendizetza baten ondorioz.

1936ko gerrako lehen bonbardaketa egokitu zitzaion. Horrela kontatzen dute gertakizun hura Amurizak eta biak: “Hamar urte, aita barik zelan edo halan aurrera urteten, eta 1936ko uztailaren 22an, goizeko bederatzirak eta laurenetan gizon batek dinotso: “Hi, txo! Joan hadi eta abioiak botatzen diharduen paper horreitako bat ekarri egik”. Esana egin behar eta badoa paper eske eta, heldu baino lehentxoago, paperak zirelakoek eztanda. Ke baltza, garrasiak eta izua hunetaraino. Gerrea zan, ezbeharririk handiena. Kaletik ihesi basora eta bidez bide, beti aurrera, heriotzatik ihesi, arratsaldeko hiruretan, arreba eta



KUTXA FOTOTEKA / FONDO FOTO MARÍN / PASCUAL MARÍN

- Tropa frankistak Otxandion sartu berri, 1937ko apirilaren 4an. OCHANDIANO errotulua duen etxea Bittorren jaiotetxea da.

biak Berrizko Andikoa barreneko aitaitaren baserrira heldu ziran.” (Mendebalde)¹. Eitua auzoko Isuntza baserri-etxera, hain zuzen.

Amak Bittor eta Lurdes hartu eta Urkiola baino beherago dagoen Santigaztelu baserrira lagundu zituen. Gero handik Berrizera eraman zituzten. Ama, Secun (Secundina), Otxandiora itzuli zen Santi seme zaharrenaren bila. Bizirik aurkitu eta hurrengo egunean Berrizera bidali zuen. Ama Otxandion gelditu zen etxea eta abereak zaintzen.

Berrizen bederatzi hilabete igaro ondoren, Otxandiora berriz. “Guztia errea, suntsitua, miseria. Etxea zelanbait konpondu eta pare bat behi eta eukezan lurrekin, erdi kale, erdi baserri bizitzari oratu eutsoen amaren ardurapean.” (Mendebalde).

Hamahiru urterekin eskolara gehiago ez joatea erabaki zuen: “1939an, udako oporren ostean, irailaren 1ean, erabaki nuen ez nintzela gehiago joango eskolara. Lotsatia nintzen, baina buruan gauza bat sartzen zitzaidanean... Nik ez nuen inperio baten parte izan nahi, eta liburuak hartu eta behiak zaintzera joan nintzen. Horrela ikasi nuen munduko berri: etniak, hizkuntzak... Eta, irailaren 3an, behiak errekarera eraman nituenean, zahar bat ikusi nuen han jarrita, La Gaceta del Norte eskuetan, ikusmena galduta: Otxandioko alkatea izandakoa zen. Esan zidan ea irakurriko nion egunkaria, eta halaxe egin eta konturatu nintzen albiste guztiak zirela II. Mundu Gerrari buruzkoak, orduantxe hasi baitzen. Zaharrak, orduan, diskurtsoa bota zidan: “Gerra hau luzea izango da. Denek uste dute alemaniarrek erraz irabaziko dutela, baina gutxienez bost urte iraungo ditu Gerrak, eta azkenean Ingalaterraren bandoak irabaziko du. Eta Jaungoikoak nahi dezala gure aberria askatzeko unea ere hauxe izatea... Badakizu zein den gure aberria?”, galdetu zidan, eta ni ahoa zabalik. Esan zidan: “Zazpi probintzia dira: hiru Frantzian eta lau Espainian, baina gure aberria ez da ez Frantzia ez Espainia”. Orduan bai konturatu nintzela zer zen hemen gertatzen zena! Nire barruan iraultza izan zen hori. Munduari beste dimentsio bat hartu nion.” (Argia)².

Hurrengo urteetan asko irakurri zuen Bittorrek: “Batzuek liburu batzuk bidaltzen zizkidaten, besteek beste batzuk. Liburu arruntak ziren, baina nik nobeletatik ere irakaspenak ateratzen nituen”. (Berria)³ “Eibarrera joan nintzen eta jendeak galdetzen zidan ea non estudiatu nuen, eta nik: “Soroan, behiak zaintzen. Liburu bat hartu eta...”. Jendeak ez zidan sinisten, eurak señoritoak baitziren, kolejoetan ikasitakoak.” (Argia).

¹ Mendebalde: 2001. Xabier Amuriza. “Ikerlari-pentsalari”. *Euskalkia eta Hezkuntza*. Mendebalde Euskal Kultur Taldea. Bilbo 227-232 o.

² Argia: 2005-09-25. 2008 alea. “Singularra defendatzeari eman nahi diot geratzen zaizkidan urteak”. Julen Gabiriak eginiko elkarrizketa.

³ Berria: 2005-10-30. “Hizkuntzak, itsasoak bezala, beti joko du bere eremuak berreskuratzera”. Iñaki Petxarromanek eginiko elkarrizketa.

Eibar

20 urterekin joan zen Eibarrera, 1945ean. Hasieran, jaiotzez otxandiarra zen Begoña Zaldibarren etxean jarri zen apopilo bizitzen, Isasi kalean. Geroago, atarte bereko Atxatarren etxean. Egunez lan egiten zuen Mateo Kareagaren lantegian, trokelgintzan, eta iluntzez “Maestria Industrial” ikasten zuen Armeria Eskolan.


Eibarren mugimendu euskaltzale indartsua sortu zen gerra osteko aro gogor hartan, eta giro horretan murgildu zen Bittor. San Martin, Laspiur, Basauri, Zubiaurre, Ugarteburu... izan zituen adiskide eta irizkide. Imanol Laspiur estimatzen zuen bereziki; sarri aipatzen du bere lanetan.

Zera idatzi zuen 1999an Serafin Basaurik, Eibarko adiskideak, Imanol Laspiurren heriotzaren harira: “1952-53.

urteetan hasi zen Eibarren, gerra-osteko euskal mugimendua sortzen, Juan San Martin, Imanol Laspiur, Bittor Kapanaga otxandiarra eta beste batzuen eskutik. Sasoi hartan, emakumeen artean eta neska-mutilen artean euskararik erabiltzen ez bazen ere, Eibarren euskara bizi-bizi zegoen: lantegietan, tekniko eta tailerretako langileen artean euskaraz egiten zen nagusiki eta kalean eta lagun artean ere bai, gehienetan, gizonaen artean. Baina garai gogorra euskararentzat: bizitza publiko osoan debekatua, komunikabideetatik eta eskoletatik erauzia, euskara goitik behera zanpatua zegoen, elizan ere ez zuen-eta euskarak lekurik.”⁴

1952tik 1958ra arte jardun zuen Bittorrek, bere lagunekin batera, euskerazko klaseak ematen herriko Club Deportiboan. Zabala Aranaren gramatika eta Xabier Peñaren metodoa erabiltzen zituzten, besteak beste. 1955an Andoni Urrestarazu “Umandi”ren gramatika egokitu eta berrargitaratu zuten.

Eibarko egonaldiak bizi gutzirako markatu zuen. Sasoi hartan hasi zen bere lehen artikuluak argitaratzen hainbat aldizkaritan.



■ Eibarren zegoeneko. 20 urte inguru izango ditu.

⁴ Serafin Basauri. *Imanol Laspiur* (1930-1999). Euskera-XLIV, 1999, 2, 1270-1272 o.

Otxandiora bueltan

1958an itzuli zen Otxandiora, Eibarren 13 urte eman ondoren. Errementarien uria izandakoa sutegirik gabe geratua zen gerra ostean, jaioterra husten ari zen eta egoera horri aurre egin beharra ikusi zuen. Kooperatiben mugimendua abian zegoen ordurako Arrasaten (Ulgor), Elorrion (Funcor) eta beste leku batzuetan, eta eredu horri jarraituz sortu zuten Bittorrek eta bere lagun batzuek Cooperativa Industrial Talleres de Ochandiano, 1958an. Bera izan zen lehen gerentea. Gero lantegia Rochman bihurtu zen eta orain Ulma da.

1962an Emilio Donado eskola maisuak, Jose Astorkia abadeak eta Bittorrek Cine Arrese zinema eraiki eta martxan jarri zuten.

1965an 36 etxebizitzako Indusi etxe multzoa sustatu zuen kooperatiba gisa, eta 1974an 48 etxebizitzako Elizabarri, *Echegiña* kooperatiba berarekin. “Horretan zebilela ezagutu eta lan-harremanak izan genituen”, dio Jose Luis Lizundiak.

Zera esaten du 2003-2011 epean herriko alkate izan zen Aritz Otxandianok: “Ni udal-ien alkate moduen hasi nintzenien, Otxandion garrantzia euki eben proiektu ezberdinek arakutzen hasten zinenien, Bittorren izena agertzen zen beti.” (Ahotsak)⁵.

1965an Talleres Ochandiano-ko gerente lana utzi eta herritik hurbil dagoen Aramaioko Oleta auzoan Apieta baserria hartu zuen errentan. Behiak ipini zituen. Txintxillekin ere ahalegin bat egin zuen, eta baita kuiekin eta ahuntzekin ere.



■ Secun Elorza amarekin eta Felipe bilobarekin.

Sasoi berean, Gerediaga Elkarteko zuzendaritzako kide gisa (1967-1969), Abadiñoako FERIA berpizten eta DIBA (Durangalde inguruko Baserritarren Alkartasuna) kooperatiba sortzen jardun zuen. Euskal Herriko Ardi Txakurren Txapelketa antolatzen laguntzen eta beste inizatiba ugari bultzatzen ere bai eskualde guztian. Laborantza teknika berriak ezagutarazten ere lan handia egin zuen. Iparraldean askoz ere aurreratuak zeuden honetan eta sarri joan izan zen baserritarrekin Eñaut Etxamendirengana-eta negutegiak eta beste hainbat aurrerapide ezagutzera.

1977 urte inguruan, azken abereak kendu (ahuntzak, behiak aspalditxo kenduta baitzituen), Apieta baserria utzi eta jaiotetxera itzuli zen bizitzera. Fruta arbola mordoa jarri zuen etxeko ortuan. Ehun bat sagar-mota ezberdin izatera heldu zen sasoi batean. Txertoen bidez sagar berriak ere lortzen zituen. Juan Luis Goikoetxeak kontatzen du behin menduak eman zizkiola txukun-txukun atonduta, eta horien artean Bittorrek berak ateratakoa: “Hau *agorreztie* dok; izena ipini dotsat “agorra”, abuztue, eta “eztie”, *Agorreztie*.” (Ahotsak). Zela sortu zuen kontatu zion zehatz-mehatz. Handi ginda eta fruitua ematen ei dago egun.

1980 inguruan, Eusko Legebiltzarra sortu zenean, itzultzaile lana eskaini zioten Jose Luis Lizundia Parlamentuko Mahaikideak eta Alberto Figuroa legelariak. Antton Mari Aldekoa-Otalora: “Ez eban onartu. Beretzat oso ondo etorriko zan diru-iturri bat bizitzeko. Baina dirudienez ez eban onartu berak uste ebalako bera erostera oiazelara horrekin... eta zuk darabilzuzan badaezpadako teoria hoiek ezabatu daitezten.” (Ahotsak).

2002an, udalak burututako plan partzialaren ondorioz, Bittorren kale-baserriko ortu eta sagar arbola gehienak desagertu egin ziren etxeak eta lorategiak egiteko. Hala ere, 2005era arte jaiotetxean jarraitu zuen bizitzen. Kolpe gogorra izan zen ortuaren galera. Bere azken urteetan ondoan izan zuen Gontzal Mendibilek esan ohi du Bittor ez zela hil 2011an, urte batzuk lehenago baizik. “Bittor oso triste egoan hil aurreko lau-bost urtean. ‘Zahartzarora gauza triste da’ esaten eustan. ‘Nik lagun asko izan dodaz, baina orain bisitatzen jente gutxi etorten jata’. Bittor hil zan defunziñoa baino lau-bost urte aurretik. Berarentzat baserria eta natura zan. Etxe hori bota egin eben eta han etxeak egin ziren. Hori berarentzat zan erailketa. Handik eroan ebenean pisu batera gaixotu egin zan; gero erresidentziara... baina ia ez zan Bittor, ez eukan bizitzeko gogorik.” (Ahotsak). Ezkongabea zen Bittor.

2004an, Liburu eta Disko Azokara joan zelarik, gaixo antzean sentitu eta bere arrebaren etxean gelditu zen bizitzen, Durangon. 2006ko udaberrian Otxandiora itzuli zen; udazkenean berriro makaldu eta Gasteizko Santiago Ospitalean egonaldi bat egin ondoren, Otxandioko Nagusien Egoitzan igaro zituen azken urteak (Orozkoan ere bai hila bete batzuk). Gasteizko Santiago ospitalean hil zen 2011ko uztailaren 14an.

⁵ Ahotsak: 2013. “Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia”. <http://www.ahotsak.com/proiektuak/bittor-kapanaga/>

2.- Euskalaria eta idazlea

Baina gauza guztien gainetik euskalzalea, euskeraren ikerlea eta idazlea izan zen: “Bittor bere munduan bizi zan. Bere mundua euskaria zan. Eta hantxe euskeran sartu eta hantxe bizi zan”, dio arreba Lourdesek. (Ahotsak).

Eibarren bizi zela, Jokin Zaitetik Guatemalan ateratzen zuen Euzko-Gogoa-n hasi zen idazten, 1953an. Gero, Zeruko Argia, Karmel, Txistulari, Jakin, Anaitasuna, *Gereediaga* eta beste agerkari batzuetan argitaratu zituen artikuluak. Bere izenaz gain, “Edonor”, “Zaltzai”, “Kabi” “Elorza”, “B. K.”... ezizenak erabili zituen.

1978an argitaratu zuen, bere kontura, *Euskera erro eta gara*, bere obrarik inportanteena. 1995ean Olentzarori buruzko bost liburuxka atera zituen: *Badator Olentzaro*; *Olentzaro: sua*; *Olentzaroren aurpegiak*; *Olentzaroren lagunak*; *Oxinondoko gertaerak*, Bilboko Olentzaro argitaletxean. 2011an, hil eta gutxira, Badihardugu Euskera Elkartek Bergarako UNEDen 1995ean emandako hitzaldiaren transkripzioa argitaratu zuen koaderno formatuan. *Euskaldunen erlijio zaharra*, izenburua. Aldi berean, hitzaldiaren audio grabazioa jarri zuen entzungai ahotsak.com gunean.

Nahiko idazle oparoa izan arren, ez zuen asko argitaratu bere denboran. Haren zenbait lanek oraintxe ikusiko dute argia lehenbizikoz, *Euskera batua eta euskalkiak*, *Euskaldunon ikuskera* eta *Initza* obrek, hain zuzen.

Aipatu beharrekoa da *garatu eta garapen* hitzen orokortzean Bittorren liburuak izan duela bere eragintzoa, izan ere, sasoi hartan nahiko modan zeuden *debelopatu* eta *debelopamendu* bezalako berba itsusi samarrak. *Olentzaro* hitzaren formarekin eta etimologiarekin ere ekarpen handia egin zuen, eta esan liteke gaur egun mundu guztiak onartzen duela, nahiz eta –ai..., gure kontraesanak!– *Olentzero* erabiltzen jarraitzen den nagusiki.

Durungaldeko Gerediaga Elkarteko bazkidea izan zen 1966 urtetik aurrera eta zuzendaritza kidea 1967-1969 epealdian. Literatura sarietako epaimahaikide ere bai. Zera diosku Jose Luis Lizundiak: “Hirurogeigarren hamarkadan, hirurogeita hamargarren hamarkadan, inizatibarik baldin bazegoen hemen, han edo hor, Bittor han agertuko zan. Ez zan lehenengo lerroetakoa, beharbada azkenengoan, edo korneyrean egongo zan, baina korneyrean egonda ere uste dut bere aportazioa egingo zuela.” (Ahotsak).

Euskaltzaindiko batzar nagusietara ere joaten zen nahiz eta euskaltzaina ez izan. 1956an Arantzazun zen, gerra ostean erakundeak egin zuen lehen biltzarrean, eta euskera batuaren giltzarri eta oinarri izan ziren ondorengoetan ere bai: 1964an Baionan egin zen idazleen bileran, 1963an eta 1968an Arantzazun, urte berean Ermuan, eta 1978an Bergaran. Eta ez zen entzutera mugatzen. Honela jarraitzen du Lizundiak: “Nik uste dot Bittor dala *rara avis* bat, bere autodidaktasunarekin, nik ezin dut konparatu Bittor Gabriel Aresti, Mitxelena edo Txillardegirekin; ez, hoiek... beste mundu bat zen. Baina bazekien hoiei ere bere puntu hartzen, bere puntu kritikoa, e!”. (Ahotsak).

Ildo horretan, aurrerago irakur daiteke *Refranes y Sentencias* liburuko zenbait esatera komentatuz *Euskera*-n argitaratu zuen *Testu zahar baten bitxitasunak* artikulua eta eragin zuen polemikatxo, oraindik ere inoiz zeresana ematen duena.

Euskera batuaren alde zegoen urte gatazkatsu haietan. Xabier Kintana: “Funtsezko gauzetan oso batera etortzen ginen. Garai hartan batasunaren kontua zen. Berak batasuna hasieratik ontzat hartzen zuen. Bueno, ñabardura batzuekin. Batasuna bai, baina euskalki guztietako gauza funtsezkoenak gordez.[...]. Gauza bat asko azpimarratzen zuena zen patxada; bai, baina astiro-astiro egin behar dela.” (Ahotsak).

Bitorrek oso garbi zuen bizkaierari, sartaldeko euskerari, inportantzia handiagoa eman behar zitzaiola, euskera zaharra ondoen gorde duen euskalkia zelako bere ustez. Hori dela eta, sarri egiten zuen taldea Mitxelenak lideratzen zuen ildo nagusiarekin.

“Une honetan euskal hiztegi batetan begira nauzue eta honelaxe diño: URUN: vide *irin*. Euskal kultura eta hizkuntzarentzat garai garrantzitsu batetan bizi garelarik, mendebaldeko euskalkia zapi zahar bat bezela baztertua dugu; eta bera bagerik ikerlan honen zati txiki bat ere egingaitza izango litzakela pentsatzean arrangura sentitzen dut eta armintzen naiz. *Irin* jatorra eta *urun* erdeñagarria, *gabe* arauzkoa eta *bage* arbuigarria, non dire euskalarien zentzu ona eta artostasuna?” (Erro eta Gara, 131).

Beste adibide bat, bere ustez, *naiz*, *haiz*, *da*, *gare*, *zara*, *zare* eta *dire* izan behar zuen *izan* aditzaren konjugazioa, *-a* singularraren marka eta *-e* pluralarena dela kontuan izanda. Baina bere proposamena ez zen aurrera atera: “Baionako batzar batean, *gare* proposatu nuen baturako aditz forma gisa. Gabriel Arestik eta nik baiezeko botoa eman genuen, baina beste guztiek ezezkoa. Badakizu: gipuzkera zen Jainkoaren hizkuntza, eta Jainkoaren hizkuntza beti da sakratua.” (Argia).



■ Juan San Martín (bazterrekoa) eta Gabriel Arestirekin. *Juan San Martín Fonda*.



■ Aita Santi Onaindia eta Imanol Laspiurrekin Arantzazun 1963ko urriaren 21ean.

Euskera batua eraikitzean erabaki oker asko hartu zela pentsatzen zuen. Lehenengoa, gure hizkuntzaren izena: *Euskera* behar zuela uste zuen, eta ez *euskara*. “Ganera, *euskara* forma orokor arauz onartuz gero, *hizkara*, *gipuzkara*, *bizkaiara* e.a. ere onartu beharko lirake.” (Erro eta Gara, 152).

Ez zaio arrazoirik falta, ene iritziz. *Sarats* dela jatorra eta ez *sahats* dionean ere, ez: “Behin euskalari batek *sahats* zela oinarritzkoa eta zuzena esan zidan gogorki. Ez nion onartu eta neurean gogor

jarraitu nuen, eta azkenean bera konturatu zala uste dut arazoa zertan datzan. Izan ere, niretzat argi dago *saratz* landarea era guztietako sareak egiteko (otzarak, zaranak, arsa-reak, atesareak) erabili izan duela euskaldunak aspaldietatik... Leku-izenetan eta honen ondorioz deiturretan, beti agertzen zaizkigu: Sarasketa, Sarasua, Sarasola, Saralegi, Sarasate, Sarasibar...” (Ikuskera, 301)⁶.

Baina Kapanaga, gutariko askorentzat lehen mailako pertsonaia izan arren, gutxi eza-gutua da euskaldunon artean, eta ezagutzen duten gehientsuek gauza bakarra dakite be-rari buruz: *Arabán bagare...* kantaren letra egin zuela. Gontzal Mendibil: “Oso gaztea nintzan, kantatzen hasi barri, 1974an zan, hamazortzi urte besterik ez nituen, eta deitu zi-daten Otxandioko jaietatik kantaldi baterako. Eta han agertu jatan niretzat adineko gizon bat; adinekoa..., 49 urte eukezan, ile zuriduna. ‘Zuri nok egiten dotsuz kantuak ba? Pres-tauko ziñeke neuk egiteko, nigana etorri eta?’” (Ahotsak). Hortik jaio zen adiskidetasun luze bat, aipaturiko kanta eta beste fruitu batzuk emango zituen. Patxi Villamor, Xeberri, Txomin Bengoa edo eta Josu Zabalentzat ere egin zituen letrak.

Hitzaldiak ere ugari samar eman zituen han eta hemen. Gorago aipatu dugu 1995ean Bergaran eman zuena. 100 bat entzule liluraturik izan zituen pare bat orduz. Azkeneta-rikoa, Arantzazun eman zuen 2005ean, Euskeraren Jatorria Elkartearen biltzarraren bar-ruan. Zati bat entzungai dago Interneten.

Garaiko euskalari eta intelektual askorekin izan zuen gutun bidezko hartuemon. Bere paperen artean aurkitu dira Norbert Tauer txekiarrarekin, Pierre Dorpe frantsesarekin, Juan San Martin, Jon Etxaide, Jose Migel Barandiaran. Pedro de Yrizar, Jorge Oteiza, Ando-lin Eguzkitza eta beste askorekin izandako eskutitzak.

1997an, Gerediaga Elkarateak Liburu eta Disko Azokaren barruan ematen duen Ar-gizaiola Saria jaso zuen euskera eta euskal kultura indartzen egindako lanarengatik. 2001ean, Mendebalde Elkarateak omenaldia egin zion gauza berarengatik.

⁶ Ikuskera: 2001. Bittor Kapanaga. *Euskaldunon ikuskera*. Orain argitaratzen da lehen aldiz.

3.- Abertzalea

Politika ere biziki interesatzen zitzaion. Oso abertzalea zen, baina ez zen partidu gizona. Nolanahi ere, EHASen sorreran zelabaiteko partea izan zuen, bere Oletako Apie-ta baserria utzi izan baitzuen bilerak egiteko.

Txema Montero: “Nik Bittor politikagatik ezagutu nuen. Franco bizirik zegoen eta antolatzen ari ginen lehendabizi EHAS, gero HASI, eta azkenik Herri Batasuna izango zen talde politikoa. Eta berak baserria uzten zigun biltzeko. Eta oso ondo gogoratzen dut lehenengo aldia –EHASekoa, alegia–; niretzat txoke handia zen, asfaltoko abertzale uni-bertsitarioak mendiko abertzale ez unibertsitarioekin. Gogoan dut elurra ari zuela mara-mara, Jose Luis Lizundia zegoen, Patxi Zabaleta ere bai, eta gero gazteak geunden, Joseba Agirreazkuenaga, Asier Loroño beharbada, eta bere lehen esaldiak harritu ninduen. Esan bezala, hotz handia egiten zuen, elurra ari zuen, beheko sua piztuta zegoen, eta gazteak berehala jarri ginen sutondoan. Eta esan zuen: ‘Badirudi asko gustatzen zaizuela be-roaren burgesia’. Esaten ari zitzaigun oso erradikalak ginela ideietan baina ez hainbeste bizitzako gauzetan”. “Berak mundu guztiarekin zeukan harremana. Juanito Ajuriagerra-ekin⁷ asko. Gainera esaten zigun gehiago hitz egin behar genuela. Baina nik uste dut ezinezkoa zela hitz egitea. Gu basurdeak ginen eta eurak kirikinoak, eta zaila da basurdeen eta kirikinoen arteko elkarrizketa, behintzat garai hartan”. (Ahotsak).

Baina, Monterok elkarrizketa horretan dionez, Bittor aspaldi konturatua zegoen politikaren mugez. Esaten du erlijiotik politikara transferentzia bat egon zela bere belaunaldian. Aurreko belaunaldiaren zutabea erlijioa zen eta hurrengoarena politika. Bittor aspaldi konturatua zegoen politikak bere mugak zituela, eta bazeudela beste gauza batzuk hura bezain inportanteak: euskara, euskal kultura, bizitzeko forma aszetiko bat...

Jose Luis Lizundiak ere gogoan ditu bilera haiek, eta baita Bittorrek zer esan zion behin, uste du 1966an edo 67an zela, Ajuriagerrarekin hitz egin ondoren: “Ez zaitue ulertzen gazteok, Juanitok’. Eta nik uste dot hori nahiko sakona dala: ‘ez zaitue ulertzen’. Eta jarraitzen du: “Berak bazituen bere iritziak, politikoak ere, ideologikoak. Bazuen abertzaletasunaren eragina barru-barruan, baina baita ere Eibartarren influentzia. Horrek ematen zion beste ikusmira bat, ez hain sabindiarra, ez hain bilbotarra, nolabait esateko.” (Ahotsak).

Bittorrek harreman handia zuen herriko gazteekin. Herriko Tabernan aurkitzen zuten elkar. 17 urteko mutila zelarik ezagutu zuen Alex Larragoitik Bittorren beste alderdi bat nabarmentzen du: nazio minorizatuen ezagutza: “Gaur egunean sartzen nazenean txokora..., barra ondoan ezkinatxoan dagoen mahi baten beti egoten zan Bittor, hori da “Bittorren txokoa”. Niretzat batez be zan lagune. Niri eta Otxandioko beste askori gertatu jakun bihurtu zala familiakide bezela. Eta asko gustetan jakon periodikua hartu eta komentatzea. Nik uste dot Bittorren beste apertaziño garrantzitsu bat dala beste naziño-

⁷ Juan Ajuriagerra (1903-1978). Otxandiarra, Kapanaga bezala. EAJ/PNVko buruzagi nagusia klandestinitate aroan.

ak eta beste minorizatutako kultura hoiek maitatzen jakitea. Akordetan naz 89an izan zani-
nien Sobiet Batasunaren porrota, eta zelan hasi ziren ordura arte ezezagunak ziren nazi-
ño batzuk agertzen, eta hor genuen kriston maixua: txetxeniarrak, ingusak edo Kauka-
soko naziño guzti hoienguruz hitz egiteko. Bitorrekin ikasi genuen hori. Harrigarria
zan horren gaiñean zuen jakitua.” (Ahotsak).

4.- Teoriak, iritziak, intuizioak...

Euskalaritzaren ildo nagusiarekin kritiko

“Ez naiz euskaltzaina, ez urgazlea ez ezer. Nahi ere ez”. (Argia). Autodidakta zen, ez zen sekula unibertsitatera joan. Bazekien hutsuneak zituela bere formakuntzan, baina bazekien gabeziak bertute bihurtzen ere. “Ikasitakoa ‘desikasten’ du orain lanik handiena zenbaitek”, esan ohi zuen irribarretxoaz, begiak diz-diz. Jabetua zegoen, jantzi akademikoa falta arren, inor gutxik bezala ezagutzen zuela euskera eta euskal mundua, eta horrek edozeinen parean jartzen zuela hizkuntza aztertzeko garaian.

“Esan izan da sen handikoa zela. Sena baldin bada jakinduria-tximista bat jaistea Izpizetik edo Orixoletik, hori ez da egia. Asko irakurtzen zuen, asko hitz egiten zuen, eta arreta handia jartzen zuen, beti doinu ironiko batez”, dio Txema Monterok. (Ahotsak).

Ez zen hitzen soinura eta lehen esanahira mugatzen, sakonagora jotzen zuen eta arkeologia, historia, ohitura zaharrak, etnografia, mitologia, erlijioa, toponimia edo eta urruneko hizkuntza zaharrak zituen ezinbesteko makulu bere ikerketetan. Eta hitz potoloei ihes egin nahi izatera, esan liteke oso ondo ezagutzen zuela bere bizi-ingurua: abereak eta landareak, basoak eta soroak, lurra, ura, sua edo haizearen gorabeherak, eta horien guztien inguruan bizi diren berbak eta pentsakerak.

Baserri-mundua ondo ezagutzea ezinbesteko jotzen zuen: “*Inaustaro*, *Ezearo* eta *Olesaro*. Hiru hauok neronek “interpretatu” behar izan ditut eta badaiteke norbaitzu ez bat etortzea adierazten dudan antzematearekin; eta nireak besteko eskubideak dituztenez gero, beste edonoren antzemakerak ere onartuko nituzke, baina baldintza batzuekin: euskeraz eta euskal logikaz interpreta-tuak izatea, gure hizkerak argiro erakusten digun arauz esan nahi dut; eta baserri mundua ondo ezaguturik taiutuak izatea. Neronek ere ez nuen egingo ikerlan hau edo gaizki egingo nuen baserri mundua erraietaraino sarturik izan ez banu.” (Erro eta Gara, 119)⁸.



■ Berrogei urte inguru izango ditu.

⁸ Erro eta Gara: 1978. Bittor Kapanaga. *Euskera Erro eta Gara*. Bilbo.

Sen handikoa zela ere ezin da ukatu. Eta espiritu librea. Etimologiazale fantasiatsua astindu ohi zituen noizbehinka bere umore eta ironia finez: “Gogoan daukat, Euskaltzaindiatik bialdu zidaten, bere teoriarekin nolako goiza pasatu nuen. Erlojuari begiratu eta, “gizon hau ondo egongo da, edo neu nago gaizki”? Mahatsarekin penintsula osoa. *Guadalajara*, zer arabeak-eta? ‘Mahats kiribiltzu orri mehea’, ‘mahats beltz ez dakit zer orri luzea...’ (Bergara, 6)⁹.

Baina batez ere oso kritikoa zen euskalaritzaren korronte nagusiarekin, eta oro har unibertsitatearen jokabidearekin. Horrela mintzatu zen unibertsitate batean 1995ean, Bergarako UNEDen, hitzaldiaren hasieran: “Unibertsitateak ere irendu egiten gaituela, gaurko sistemak. Irendu. Zer pasatzen da? Ba unibertsitate baten lanak egin behar dituenak eta ohituta daude zitak, zitak... Jarraitu egin behar duzu. Ni ez naiz unibertsitatean ibili, baina zitaren menpekotasun horrek esan nahi du jarraitu egin behar duela, beste batek esan duena erabili eta erabili. Eta gure askatasuna zer? Nun dago gauzak berriz ikusteko eta egiztat dauden gezur sakratuak gezurtzat salatzeke, edo gezurtzat dauden egi gordinak egiztatzeko askatasuna?” (Bergara, 6.).

Euskera deskubritzeko zain dagoen sekretuz betetako gordailu gisa ikusten zuen. *Hamar* hitzaren etimologiaz ari delarik: “Guzti honen adierazpena argia eta polita dugu: garai batetan gizakiak hamar izan baldin bazuan kontatzeko muga eta amaia, handik gorakoa **amaigea** izan behar; eta horretatik hamarren urrengo zenbaki gertatzea, bai eta amaigetasunaren adierazle ere izatea. Euskera harrigarri dugu millaka urteren buruan ere, eta honelakoxe bitxitasunak ditu beragan. Aztertzen eta ikusten saiatu egin behar.” (Erro eta Gara, 176)

Euskerak duen logika azpimarratzen du behin eta berriz: “Euskaldunek, beren hizkuntza logika biribilez atondu dute; orain gabiltz logika hori ahazturik edo galdurik, arazari buztana aurkitu eziñik.” (Erro eta gara, 104).

Terminologia zientifikoan *berreraiketa* deitzen zaion hori egiten du etengabe bere erroetarako bidean. *Garadura* esaten dio berak: “Gaur egun, **egin = ein = in** izan dala aditz honen garadura uste dute gehienek; baina nik irmeki uste dut bestetara izan dugula aldakuntza bide hori: **in = e-in = egin.**” (Erro eta Gara, 93).

Eta ikerketa asko leku okerretik bideratzen direlakoan zegoen:

“Baina nola demontre ausartu nindekean ni, baserritar bat, ez titulurik eta ez ikasketarik eta gaztea ganera, holako sakontasunetan sartzera? Urrundik bada ere, ikusten nuen jende ikasia “esnearen bitsa” analizatzen ebillela, esnea zelakoa zan jakinmiñez. Eta pentsatzen nuen, bitsean esnea baino haizea gehiago dalarik, ez zutela erraz azalduko esnearen izaterik.” (Erro eta Gara, 42). Eta jarraitzen du: “Baina gure “erdipurdizko aro” honetako euskalariak zertan ari zaizkigu? Urre mea baten gain eseririk, ea lur gorrizka horrek liliak landatzeko balio ote duen analizatzen, esango nuke nik.”

⁹ Bergara: 1995. “Euskaldunen erlijio zaharra”. Bergarako UNEDen emandako hitzaldia. 2011an Badihardugu Elkarteak argitaratua.

Erroetara jotzen

*Eusker*a Erro eta Gara bere obra nagusian, lehen soinu artikulatuak ahoskatzen hasi zen giza aberearen larruan jartzen aha- legintzen da, eta oinarrizko erro edo “fo- nemak” aurkitu uste ditu euskerazko hi- tzetan: *iz, in, il* (izatasuna, egintza, getasuna), eta *ar-ur, u, ge, go...* Dozena bat erroren konbinaketatik sortuko ei ziren hitz eta kon- tzeptu gehientsuak hasieran. Bizitzaren eta hizkuntzaren ekonomia.

Hizkuntzalari guztiek egiten duten oi- narrizko galdera egiten du: “Aldi haretan, nola bizi ote zan gizakia?, multso bakarrean ala banatuetan? Hitza sortzeko gai izan za- nean, elkar ezagutzen ez zuten multsoetan banaturik bizi ote zan?, eta zenbat multsotan izan ote zitekean?, hastapeneko sorreran, multso bakarra ote zan?” (Erro eta Gara, 55). Galderak plazaratzen ditu, ez du eran- tzun zehatzik, baina ikerketa bideak iradoki nahi lituzke. Intuizioak eta irudimenak ere asko laguntzen dute horrelako gaietan, eta horietatik erruz zuen.

Berari *hiru* kopurua agertzen zaio sarri ikerketetan. Goian aipatu ditugun euskera- ren hiru arlo nagusiak, ura izendatzeko hiru hitzak (*iz, ur, gar*), eta abar. Horrek euske- ra hiru lehenizkeraz osatutako hizkuntza dela pentsatzera eramaten du: “hirukoitzasun gar- bi bat ageri zaigula euskeraren erraietan. Izatasun egintza eta ukatze zentzuetan hirukoitzasun berdiña genula; beraz hiru lehenizkeraz osatutako hizkuntza dugula dirudi euskerak.” (Erro eta Gara, 56).

Euskeraren jatorriari edo nondik norakoari buruz ere bazituen bere iritziak. Gure he- rriak epizentroa beste nonbait izan zuela antzina pentsatzen zuen: “Hortik beste teoria bat ateratzen da, euskalduna, gaurko euskal kultura ez zela hemen gorpuztu, bizkaiera eta gi- puzkera bezelako ezberdintasunak ez zirela hemen gertatu. Replegatutako herrialde bat. Hau Euskal Herria izango zela? Bai, Euskal herriaren basoak. Noizbait replegatu zirela, boladaka replegatu zirela. Jainko-izena ezberdina zerabilela. Aditzaren plurala ia errotik ezberdindua zegoela. Eta hori ez da gertatzen mendiko hamar mila personako zer batzutan. Euskeraren urratsik garrantzitsuenak beste nunbaiten gertatu ziren. Hemen replegatuta iraun.” (Bergara, 8).

Mediterraneoan ditu begiak jarrita “Aspaldiko denboran, aintzinatean, Mediterra- neoan zehar kultura, zibilizazio hedatu bat izan zala dirudi, eta hori euskal munduari lo- turik dagoela ere... Euskal munduari dagokionez, “etnia isla”, “lengua isla” eta horrela-



■ Lurdes arrebarekin Donostian.

ko eritziak nagusi izan ditugu aspaldi honetan. Esan nahi da hemen sortu, hemen garatu eta bertan hiltzera doan giza-mundu bat garela gu euskaldunok, besteekin inolako loturarik ez dugun gizakiak. Eritzi hauek ez dute luzaro iraungo, ez baitute inolako oinaririk ez euskarririk.” (Ikuskera, 280).⁹

Grezian, Ekialde Hurbilean, eta batez Mesopotamian eta Kaukason ikusten du euskeraren aztarna gehien. Sakonago aztertu behar direla herrialde horietako hizkuntza eta kultura zaharrak, dio behin eta berriro: “Hoiekin guztiekin erkatu beharra du euskerak, baita besteekin ere: sumeriera, Urartukoa, Egiptoko koptoa, semitak, minoikoa (ezer badago behintzat), grekoa, albaniera, etab. Orain arte hau guztia pekatu astuna izan da, aipatu ere ezinezkoa, gure jauntxoek gustora jolasten baitzuten euskera latinarekin erkatzen, hori bai, beti latina eredutzat ezarriz.” (Ikuskera, 280).

Antton Mari Aldekoa-Otalorak kontatzen du hiru egun pasatu zituztela Bitorrekin txabola batean gai hauetaz berbetan, eta tartean zela Joseba Sarrionaindia: “Irakurten nituen gauzak eta arduratzen nintzen holako kontuekaz, euskeraren jatorria eta horrelako kontuekaz, bateko teoria kaukasiarra, handik gatzela, hemengoak eta hangoak lehengusuak ginela, hor glaziaziñoak egon zirela... Eta behin suertau jakun Bitorregaz holako egonaldi bat egitie, 1979-80an, hain zuzen hiru lagun: Jose Mari “Mañari”, Joseba Sarrionaindia eta ni neu. Egun osua emon gendun Bitorregaz txabola baten barriketan.”



■ Patxi Alañaren ondoan, Euskeraren Jatorria taldearen I. Biltzarrean, Arantzazun, 2005ean.

Ez ditugu hemen jorratuko etimologia alorrean egindako ekarpenak –asko genialak, nahiz eta ofiziokoek ezentzun egiten jarraitu–, baina ezin aipatu gabe utzi ondo frogatuta utzi zuela, adibidez, *gar*-ek ura ere esan nahi duela (*garbi, garden, garo, garnu, egarri, Garona...*). Edo *Ara* eta *Aran* erroek altarea, leku sakratua, olgetalekua, batzarlekua esan nahi izan dutela noizbait, eta oso eztabaidagarria dela “mundu guztiak” onartzen duen *aran = ibar, bailara* berdinketa. Edo euskal astearen erakera zaharra eta egun-izenen zergatia; edo *Egu-Urtzi*, jainkoaren bi izenak eta horren ondorenak; edo *okelerre-akelarre* bihurketa, eta beste hainbat.

Ehunka proposamen etimologiko egiten ditu, eta gehientsuak, ene ustez, zuzenak, edo zuzenak izateko antza dutenak, “Se non è vero è ben trovato” esateko modukoak. Izan ere, begi-bistakoa da hitz askoren etimologiak, hipotesiak hipotesi, iluna izaten jarraituko dela ezinbestez. Zuritik beltzerako gama guztia eskaintzen dute hitzek eta toponimoek, eta esan daiteke Bittorrek, jakinduria senaz eta irudimenaz uztarturik, grisean zeuden asko zurira ekartzea lortu zuela, eta beltzean zeuden batzuk ere bai, edota gutxienez grisera. Nolanahi ere, eztabaidarako arlorik emankorrena da etimologia, eta hainbat ditu eztabaidagarriak. *Bake* hitza, esaterako, *bage*-tikoa dela uste du, eta ez *pax, pacem* latinetikoa.

Ziurtasunak eta zalantzak garbi azaltzen ditu, zientzialari onak egin ohi duen moduan. Batzuetan tinko eta seguru agertzen da bere iritzietan: “*itzarri* (itzartu); beronen atondura oso esankorra dugu eta guztiz argia: *itz-ar-i* (tu); “hitza hartu” esan nahi duana itsuek ere badakuste”; “Argi dago *ukan* eta *euki, in* adizgilearen eraginez sorturiko hitzak ditugula.” (Erro eta Gara, 137) .

Beste batzuetan, zalantza gehiago du bere proposamenekin: “*llun* zalantzakorrigo dugu; *il-un* izan daiteke, ukakor fonema bi batean baturik; baina *il-une* (“período de sin/luz”) ere berdin izan daiteke” (Erro eta Gara, 142); *Gorroto* ere adierazpen gaitzekoa dugu. **Gor-*u*-tu** sorbidetikoa izan daiteke, getasun zentzuzkoa eta aditz izana, baina hau daiteken bat bakarrik dugu. (Erro eta Gara, 157).

Eta beste askotan, datuak urri direnean edota zorua labana dela ikusten duenean (euserkerazko hitza eta erderetakoa berdinak direlako, adibidez), atzetik letozkeen ikerlarien teitlatuan uzten du pilota: “Eta *ara* (*ar*) zuhaitza dugula argiro probaturik dugulako ustean, irazkin batentzako bidea dugu: erderazko “*árbol*” hitza ere *ar* fonemaren gain eratua dugula; izen horren jatorriari buruz azterketa sakon bat oso baliotsua litzake.”; “*Gare* eta *garau* ezin daitezke besteetatik lokatu; talde batetakoak ditugula ziurtzat ematekoa dala dirudi. Beraz, erderazko ‘grano’ ere hauekin kidekatu beharrezko dugunez, aztergarri egiten zaigu.” (Erro eta Gara, 163). Sarri darabil “aztergarri” hitza; argi txiki bat ikusi bai baina zerena den ez dakienean, seinlatu egiten du, beste batzuek har dezaten ikertzeko ardura.

Formari dagokionez, Kapanagaren idatziek zerikusi gutxi dute hizkuntzalari edo filologoaren ohiko artikulu eta liburuekin. Aipatu aipatzen dira (ez asko) beste ikerle batzuk eta haien obrak, baina ez du ekartzen hitzez hitzeko zitarririk, orripeko oharrik eta bukarerako bibliografiarik. Pekatu barkaezina askorentzat. Ez da eredu onena, bistan da. Baina iruditzen zait pekatuak barkatuta geratzen direla Bittorren bizitzako ibilbidea ezagutzuz gero. Gainera, haren lanak irakurri ahala, argudioek eta iritziek ezohiko gardentasuna hartzen dute soiltasun horretan, eta garbi geratzen dira bere teoriak, iritziak eta zalantzak

zeintzuk diren. Eta aldizkari berezituetakoa artikuluak irakurtzetik baldin bazatoz, ia eskertu ere egiten da hori, askotan aipuen anabasaren artean ez baita egoten modurik egilearen iritzia eta ekarpenak zeintzuk diren bereizteko.

Latinopatia eta atxepatia

Onartzen zuen latinak euskeran izandako eragina, baina “latinopatiak” bere onetik ateratzen zuen: “Izan ere, latinopatia buru jantzien gaixotasun larri bat izatera heldu zaigu aspaldietatik eta ez du ezagutzen ez zuhurtasun mugarik eta ez sentasun izpirik ere.” (Ikuskera, 304).

Eta ezerk baino gehiago *-tu*, *-du* adizgilea latinetikoa zela entzuteak aztoratzen zuen: “Nola liteke hizkuntza hoiek baino milaka urte beranduagokoa dan latineko “-tum” hori, partizipioak egiteko erabilia, gurearen iturburua izatea? Hori ume batek bere amona erditu duela esatea bezelaxe da. Baina hemen guztiek sinetsi dute eta eskoletan ere “-du, sufijo tardío, proveniente del latín” irakasten da. Baina jendeak ez ote du sentasun izpirik hori egizat onartzeko? (Ikuskera, 305).

Euskera euskeratik begiratzuz aztertu behar zela aldarrikatzen zuen: “Eta gauza batez ohartzen naiz; gure jakintsu gehienak erdera gehiegi dakitela, erderen estrukturaz (edo antiestruturaz) kutsaturik direla, eta hain zuzen horixegatik ezin dutela euskeraren arazoa argitu edo erabaki. Gehienek ez dute euskeratik begiratzuz euskera aztertzen, erderatik begiratzuz baino. Eta hau gaitz txarra dugu bai euskerari buruz ikerlanak egiteko eta bai (areago beharbada) gure hizkeraren geroa antolatzeke edo, hobeto ulertu dagizuen, euskera batu egoki bat moldatzeko.” (Erro eta Gara, 47).

Hatxearen erabilera naturaltasunez onartu zuen batasunaren izenean, eta bere idatzietan Euskaltzaindiaren aholkuak jarraitzen ditu gutxi gorabehera; gutxi gorabehera, ezen, etimologia arrazoiengatik zenbait hitzi ez zion sekula hatxerik jarri nahi izan. Bere ikerketen arabera, ez da jatorrizko soinua euskeran, ez da “etimologikoa”, eta, beraz, ez dio ezer eskaintzen erroen bilaketan.

Dena dela, hatxearen erabilera gehiegizkoa ez du atsegin: “Eta nire ustez **in** dugunez arlo honetan sortzaile nagusia eta errokoena, bada *in-hitza* izango genuke ondoriorik garbiena. Norbaitek *h* hori hor behar litzatekeela esaten badu, argiro erantzungo diot: ez dut ezer hizki horren aurka, baina ez naiz inoiz kutsaturik egon atxepatiaz. Eta ez litzaidake atsegin izango “*injitza*” bezelako hitz bat entzutea. Badut eskarmentua holakoetan.” (Initza, 311)¹⁰.

Eta beste hau: “Ganera, nabari dugunez, hemengo gure arazorik beharrezkoenak, “paradisuko” hitz garbikeriaz” gain, “unibertsalkeria” merkea eta “atxegintza” atsegiña ere baditugu. *H* izkia aurrera bultzatu duen burukalaririk ausartenen bat, idazle aberatza eta euskaltzaina ganera, izan dut atzo nirekin, eta hauxe esaten zidan: “nik uste diat zenbaitentzat “atxegin” (atxe egin) eta atsegin gauza bera dala; ez zegok neurririk gure artean”. Ni ere aspalditik horixe sumatzen ari naiz, burua baino gibela ugariago dugula euskalarien artean.” (Erro eta Gara, 124).

¹⁰ Initza: 2004. Bittor Kapanaga. *Initza*. Lehen aldiz argitaratzen da hemen.

Begikoak eta begitan hartutakoak

Euskera erro eta gara-ren hitzaurrean argi uzten ditu bere filiak eta fobiak: “Ziurtasunez beteriko jakintsuek, ‘hau halaxe da, frogaturik dago’ esaten dutenek beldur ematen didate. Beren jakintegiko arazetan “egia osoak” lerroka ipinirik dituzten ikasiek, ez ditut nahi nik solaskide. Maiteago ditut inguruan erratzearen zalantzez direnak, ez dakigunari so direnak, gizaxo bati entzuteko gai direnak eta iluntegia aztertzeko adorea dutenak.” (Erro eta Gara, 27) .

Asko estimatzen zuen on Joxe Migel Barandiaran, eta ataundarrak ere bai bera. Liburu honetan zehar sarri aurkituko dugu haren izena. Baina, lehen esan dugun bezala, oso kritikoa izan zen euskera batuaren lema eraman zutenekin eta, oro har, “eruditoekin”: “Gipuzkera batez ere erroetatik oso urrundu geratu zaigu, eta euskera batua eratzean hau gogoan ez izatea benetako zoritxarra izan da gure hizkuntzarentzat. Ni saiatu nintzen batzuei eta besteei arazoa adierazten baina ez zegoen girorik horretarako. Gure erudito nagusiek latin asko zekiten eta erratezinak ziren. Horrela sortu zaizkigu *zarete* bezelako esperpentoak. Gipuzkerako eruditik sorteraziak eta jakina, analogiaren eraginez “*garete*” ere entzun izan dut inoiz.” (Ikuskera, 296).

Hori bai, bere idatzietan ez da inoiz agertzen begitan harturiko “erudito” horien ize-nik. Eta adiskideekin izaten zituen solasetan ere nekez aterako zion inork horrelakorik. “Pekatua bai, baina pekataria ez” zen, nonbait, bere lema. Oso diskretua zen. Baina ematen du bizitzaren amaieran aspertu egin zela txintxoia izaten, eta barruan kabitu ezinik zituena hustu nahi zituela. Hori ulertu daiteke behintzat Julen Gabiriak 2005ean egin zion elkarrizketan:

“Jainkoak sortu egiten dira, eta, sortzen ez badira, sortu egiten ditugu. Hemen ere egon dira jainko faltsuak, eta bat, argi esateko, Mitxelena izan zen. Euskara ez zuen ondo ezagutzen: latina maite eta latina bizi zuen.” (Argia). Eta jarraitzen du: “Oso beldurtia izan naiz, izatez. –*Euskarari buruzko batzarretan ere bai, Mitxelena aurrean zeneukanean?* Ez, orduan ez. Horrelakoetan, beldurra baino, adore falta izan dut. Orain, denboran atzera egingo banu, gogorrago egingo nuke. Baina orain beste batzuk sartu dira, eta erretititzen ere jakin behar da.”



■ Emilio Donado herriko maisuarekin Otxandioko udaletxe aurrean.

Oteizarekin ere izan zuen harremana. Baina dirudienez, ez zuen oso begiko: “Oteiza bluff bat izan zen. Ez genuen elkar ezagutzen, baina, egun batean Otxandiora etorri zen Itziar emaztearekin. Bat-batean agertu zen, inongo azalpenik eman gabe, eta hiru egunez egon ginen hirurok etxean sartuta. Konturatu nintzen Oteiza nire deskubrimenduz jabetzera etorri zela, gero berak erabiltzeko. Baina ez nizkion eman: hiru arlori buruzko teoriak nituen, eta arlo bakarra azaldu nion. Horregatik, *El Euskera Preindoeuropeo* idatzi zuenean, lan hura herren irten zitzaion.” (Argia).

Eta atal hau bukatzeko, Bittorren testamentu kutsuko berba hauek, hil baino 33 urte lehenago idatziak: “Eginarekin utziko dugu gaurkoz ahoskien azterlan hau. Badakit hitz askotan irrist egin izango dudala; antzerakotasunak eta halabeharrak laban eragin izango didatela. Beraz, akatsak bilatzen saiatzen direnak izango dute beren uzta. Baina horrek ez dit ardurarik ematen; nahi nukena besterik da; hemen adieraztera ahalegindu naitzen izakera mundu hori badan ala ez dan, zerbait benetakotan ala zorabio batetan ibili naitzen aztertu eta erabaki dezazutela nahi nuke.” (Erro eta Gara, 183).

5.- Bittor Kapanaga adiskideen begietan

2013ko azaroan Bittorren adiskide izandako hainbat laguni deitu eta eskatu genien Durangora edo Otxandiora etortzeko Bittorri buruz mintzatzera kamara aurrean. Harrituta geratu ginen erantzunarekin. Hogeita sei lagun agertu ziren, horietako zenbait izen handiak. Termometro ona izan zen Bittor zenbateraino zen estimatua antz emateko.

Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia izenburupean aurkitu daiteke emaitza Interneten, ahotsak.com gunean, gorago esandako helbidean. Sei orduko grabaketak, 115 bideotan zatituta. Interesa duenak badu aukera. Hango zertzelada batzuk ekarriko ditugu hona.

Aztia, orakulua, profeta, txamana, druida, maisua

Horrelako berbak irten ziren elkarrizketatuen ahotik kamara aurrean zein atzean. Igor Elortza: “Nik esango neuke Bittor azti bat zala. Nik gogoratzen dotenian Bittor ikusten dot bere irripar bihurri hori, bere begixek dizdizke. Beti zan persona bat zirikatzen zinttuena, zirikatu inteligentziaren zentzunien. Zehar-esanekin, galderak eitten, beti proboketan, esan biharrien hau holan da edo hori ez da hola...”



■ Urkiolan Gontzal Mendibilekin eta beste lagun batzuekin, 2004. ekainaren 13an, Iparragirrek "Gernikako Arbola" 1854. urtean kantatu zuen leku berean.

Askok aipatzen dute zeharka jardute hori. Xabier Amuriza: “Beti txokau xaten bere gauzak espliketako eria, erdittik barik albotatik hasten zala beti. Beti ertzen bila”. Xabier Kintana: “Beti erdizka. –Zer esan nahi dozu? –Aaa..., aaaa!, egiten zuen, eta a... misteriotsu horretan ezkuta zitekeen edozein gauza.” Gontzal Mendibil: “Norberak deskubridu bihar dabezela gauzak, hau da, deskubridu bakotzak egin bihar dauz; nik botako dotsudaz puntuak. Eta niretzat hori oso baliagarria zan, ze hemen gehienok jakitun, nik nere egia daukat eta nire egia da benetakoa, eta horretan Bitor, uste dot, jakituna izan da horregatik.”

Metaforen bidez espresatzen zela dio Gontzalek. Beraren bidez ezagutu zuen Aresti, eta gogoan du behin Bilbon biei entzun zien elkarrizketa: Aresti: “hau, gatxa da Bitor, gatxa. Gauza onak beti dira gatxak”. Eta Bitor: “Gauza onak gatxak dira; arrautza biribila da, baina biribil diren guztiak ez dira arrautzak, Gabriel.” Bitor zan parabolak botatzeko gizona, metaforak, metafora argiak”.

Alderdi literario horrek erakartzen zuen, besteak beste, Amuriza: “Literaturie, zelabait esateko, gauzia bera baiño gauzien espresioñue gustetan jat. Harek espresioñue itzala euken. Eta obserbazioak be oso originalak, hasi gorengo politikatik... Harek egitten zituen obserbazioek ziren oso originalak, oso zehatzak eta oso azertauk.”

Aholkularia, gidari espirituala

Jon Lopategi bertsolariarentzat laguna baino gehiago izan zen Bittor: “Sasoi baten hillian behin edo egingo neutsan bisita bat; pentsu-saltzaile ibiltzen nintzen. 64an ezagutu neuen. Beti aberasgarri izaten zen beragaz berba egitia, danetatik ekien interpretazioak ondo egiten, eta beti sentimentuak emoteko gertu, aberatsa zen sentimentuz eta jakituriz. Bertsotan hasi nintzen eten barik, gehienetan Azpillagaz, eta apur bat gustetan jakun guri be arazuetan sartzia, politikan eta abar, eta horretarako asesorerik onena eta aholkularirik onena Bittor izaten neuen. Eta orduen bisitatu be egiten neuen askotan horrexengatik, halako gertaera edo bestelakoa pasatu eta ia zelan interpretatu edo, hartaz zelan berba egin, edo isilik egon edo. Bera zan hortan nire aholkulari betikoa eta konfiantza osoa emoten eustana.”

A. M. Aldekoa-Otalora: “Gerediagan gure ‘director espiritual’ ez dakit baina gidaritzat bai hartzen genduan edozein momentutan, eztabaida bat izaten gendunian. Bera-gana hurbildu eta ‘Hi, hau jaukau esku artian.”

Sikologoa, igerlea

Juan Mari Atutxa: “Nik uste dot sikologia handiko gizona zala. Niri esaten eustan askotan berak segiduen igertzen euela persona bategaz berbetan egon ezkerro, persona hori guzurretan bazegon. Zelan? Sudurra apurtxo bat mobidu egiten da, hor igertzen da.”

Juan Mari Otxandioano: “Nik uste dot selekzionau eitten zittuala persona batzuk gero eragina izateko beste batzuengan. Oso zuhurra zan, argixe zan, enbalde ez eban lanik egiten”.

Xabier Kintana: “Berarekin pasioan ibili eta, –Ikusten dozu, Xabier, etxe honetan andreak agintzen dau. –Ezagutzen dituzu? –Ez, baina ortuari begiratzea besterik ez dago, eta gizonak agintzen duen lekuan, hemen solo eder bat artoz beterik eta... Andreak agintzen duen lekuan loretxo batzuk hemen, beste zerbait handik eta halako zer batzuk agertzen dira gizonezko batek egingo ez lituzkeenak.”

Remigio Arrese: “Laspiurrek “sorgiña” esaten otsan. ‘Benga Bittor, atara *rayos x hori*’, esaten otsan klandestinidarian eta ibiltzen zirenen.”

Gontzal Mendibilek grabatu gabe dagoen Bittorekin izandako elkarrizketa gogoangarri hau ekarri du gogora: “–Nik bi eratako pertsonaiak desberdintzen ditut bizitzan, Bihotz oneko jendea eta bestetarikoa. Eta bihotz onekoak ez direnekin harrapaladan aldentzen naiz. Badut jendearen izaera igartzeko berezko intuizio bat. –Baina Bittor, pertsonak aldatu ere egin daitezke. –Sekulan ere ez, inoiz ez gara aldentzen garen horretatik. Txarra danak txarreragoko bidea hartuko du eta ona danak on egingo du eta ondu egingo da bizitzaren joanean. Jendeak begiratu egiten du baina ez du ikusten, ez da konturatzen aurrean daukanaz eta gehienak ezertaz konturatu barik pasatzen dabe bere bizitza.” Eta jarraitzen du: “Jendea berez ez da ona baina onetik asko dauka. Animaliak gara eta zerbait gehiago izateko gelditu beharra dugu, gelditu, erreflexionatzeko.”

Tematia, setosoa, burugogorra, polemikazalea

Dena ezin hitz goxoak izan. A. M. Aldekoa-Otalora: “Bera tematia zan berean”. Maire Larrañaga, azkoitiarra, Irakasle Otxandion. Gipuzkoarra izanik, hitzen gorabeheran eztabaidatu izan zuten inoiz. “*Laster-laister...* Nik ixten notsan berari, azkenean isiltzen nintzen, eta ez dot diskutiduko. Bera zan gainetik jartzen zana.”

X. Amuriza: “Setosoa zan, danok garien moduan. Ze artistak-eta apur bat izen gura danak setosoa ez bada ez da inora aillegetan. Eta ha polemikua zan eta setoso samarra zan. [...]. Kontrarixoak behar zituen bere bizipozik eukiko baeban. Eta zenbat eta handixagoak eta hoba. Mitxelena eta Euskaltzaindian gorengoak eta horrek behar zituen. Baina horrekin teman egiteko, bera autodidakta izanik, informaziño eta ezagutza handixe eukin”.

Urtzi Armendariz: “Oso erreza zan beragaz kontaktetia, oso zabala zan, baina aldi berean oso burugogorra, oso gatxa zan bere pentsakeratik..., berakin diskutidutie ezi-nezkue zan”.

Bakartia, austeroa, zintzoa, umila, optimista

G. Mendibil: “Lagun asko eukazan, baina azken baten bakardadean euan beti, bakarrik bizi zan, eta bere lagunak euskera eta landareak eta natura ziran, eta animaliak eta hori, eta horrek emoten eutsan berotasuna eta argia.”

Tx. Montero: “Niretzat Bittor batez ere da gizon austeroa, aszetikoa; beste batzuek bizitzeko beharrezkotzat jotzen ditugun hainbat gauza berak ez zituen behar. Bakarda-

dean bizi zen; bai, harreman handia zuen jende askorekin, baina ohean sartzen zarenean bakarrik sartzen zara, Bittorren kasuan bakardade erabatekoan.”

Serafin Basauri: “Persona optimista. Akordatzen nok ni, soldau joan aurretikan esaten estan, berak eitten zeban jesto horrekin, ixilixan berba eitteko moduan, sekretuan: ‘Hi lizentziau orduko Franco joan dok.’”

Gontzal Mendibil: “Bere azken denboran makal eta indar gabe agertzen bazen ere, Bittorrek hala ere, itxaropentsu ikusten zuen euskeraren eta Euskal Herriaren etorkizuna, horretan oso baikor zegoen, beti ere bere pentsamendu eta iritzi kritikoaz. ‘Gure eginbidea euskera eta kultura suspertzean dago’ zioen sarritan. Bakoitzak egin beharreko lanaz eta auzolanaz, herri-lanaz sinesten zuen batik bat.”

Jose Migel Barandiaranen apaltasunari buruzko gertaera eta esaera mitikoa lehen pertsonan bizi izan zuen Mario Padillak Ataunera Bittorrekin bisitan joan zen batean: “Eta sagarra eguan darixola, erramak hola goitti behera. ‘Ikusten dozu ha zelako aberatsa dan ha sagarra? Ba begittuiozu, ez dauka harrokerixarik bape. Da humil-humile’. Jose Migelek esaten eutsan Bittorri: ‘holakoxia izan bihok.’”

Remigio Arrese: “Jentiak ez euen ulertu Bittor. Ez zan aillegau ezagutzera. Jente gutxi ezagutzen dau. Arrarue..., klaro, ezagutzen ez badozu arrarue da. Baina nik uste apur bat ezautu dabenak onartzen dabela, gizon jakintsu eta zintzo bat moduan gaiñera. Gizon zintzue! Harek ez eukan diru zaletasunik eta ezebe, harek ez eban... eran be ez eban eitten, erre be ez eban eitten... Esan “hartuizu ba zeozer”, eta “zetako hartuko xuat ba, etxaukat gogorik eta”. Harek bere baloriek jakintzan eukezan.”

Aitzindaria, pentsalaria, filosofoa

Ortulanen jardundako Iñaki Gorroño berriztarrak dio Bittorrek emaniko ideia gehienak eraman dituela aurrera. Berotegiena, aurretik zuen ideia, baina Bittorrena izan zen bultzada. Etxeak ere egin zituen kooperatiba eran Berrizen, Otxandiokoa ereduari jarraituz. “Ni kontagiatu ninduen Bittorrek, Bittorrek emon ostan sen hori, beti izan bihar dala aintzindari”.

Jose Luis Lizundiak, Bittorren hainbat ekimen gogoratu ondoren, zera dio: “Nik uste dut Bittor, ezer izatekotan, pionero bat izan zala.”

Patxi Alaña: “Atzeak erakusten du aurreak nola dantzatu’. Bittorrek erakutsi digun gauza garrantzitsuena horixe da, etorkizunari aurre egin ahal izateko ez dago gauza hobegorik atzera begiratzea baino.”

Juan Kruz Axpe: “Bizitzako filosofia bat lantzen eban, berak bizitzeko era bat zeukan, eta utopia baten mobitzen zan, utopia horrekin sarritan bat egiten gendun, ze bere utopia, bere bizitza zan oiñarrixek topetie gauzena.”

Gontzal Mendibil: “–Eta, zein da bizitzaren esanahia Bittor? –Batetik, heriotzak zor digun izatea sakratua baita. Bestetik, misterio handi bat, eta gure helburua eta jakinmina misterioak deskubritzen jardutea da.”



■ Gontzal Mendibilekin Otxandion, Nagusien Egoitzan, 2010ean.

“Amaren sua berpiztuko dut”

Eta adiskide mina izan zuen Gontzal Mendibilen hitzak amaitzeko: “Aresti aipatu dot lehen. Bitorrek eta biok askotan aipatzen gendun gure amatasuna, amatik zetorren persona zan; berarentzat ama dana zan; ama, bere ama, hortik datorrelako, baina ama lurrak ematen ebana, eta beti esaten eban: Guk gure pentsakera moduak aldatu egin behar doguz; hau da, Arestiren ‘Gure aitaren etxea defendituko dut’ horrek balio izan dau. Baina horrek puntu batean amaiera behar dau, eta joan behar dogu atzerago baino aurrerago. Eta atzerago joatea da: ‘Amaren sua berpiztuko dut’. Hori geureagoa da. Hori beharbada jendeak ez du ulertu, baina horra jo behar dugu, aztertzeko euskeratik, gure pentsakertatik. suak daukan indar horretatik eta bilkura horretatik.”

“Eta orduan hori esaten deutsunean holako batek esaten dozu, joño, zerbait miresgarria da hor, misterio hori. Hor bota deusku Bitorrek eta guk deskubritu daigula. Bidean jende asko dago, eskerrak!, beraren teoriei eta pentsakerari jarraipena emoteko, eta hori poztekoa da. Pozik egotekoa da, joan jaku, baina hemen dago. Bitor bizi-bizirik dago, eta bere teoriak nik uste dot inoiz baino biziago dagozela, eta inoiz baino etorkizun handiagoan dagozela.”

Bittor gure bihotzean

Txema Montero: “Agian sentibera samar jarriko naiz, baina Bittor gorde beharko genuke gure bihotzaren leku berezi batean, errepikaezina delako, gidoitik ateratzen delako, heterodoxo geldigorra izan zelako...”

Patxi Villamor: “Dagoen lekuan dagoela ere, jakin dezala bera geure gogoan dagoela, bere lana ez dela izan alperrik, eta bera gure bihotzean egongo dela betirako, eta benetan maite dugula.”

Eta amaitzeko, Jon Lopategik eskaini zion bertsoa:

Bertso bat jaurti barik ezin dot
Bittor lagun zaharra laga,
gizon berezi eta argia
argirik inondik bada,
eta aintzat hartu gura badogu
merezi eban erara
Otxandioko profeta haundi bat
dogu Bittor Kapanaga,
gure Bittor Kapanaga.

Kantaldia-Bertsoaldia
Bittor Kapanaga
gogoratzuz



Uztailak 12, larunbata - 20:00etan - Otxandioko Elizan

Gontzal Mendibil	Txomin Bengoa	Xabier Amuritz
Niko Etxart	Otxandioko Abesbatza	Unai Iturriaga
Josu Zabala	Xeberri	Igor Elortza
Patxi Villamor		

Sarrera: 6€. Aurretik erosteko behean adierazitako kontuan

Bazkaria eta Bittorri buruzko solasaldia
Uztailak 12, 14:30etan Korostondo (Otxandio)
Sarrera aurretik hartzea ezinbestekoa da: 25€ (bazkaria+kantaldia barne)
Kantaldi edo bazkarirako kontua: 2095-0113-10-9109602853. Abonuan izen-abizenak jarri

- 2014ko uztailaren 12an Otxandion egin zen jaialdi-omenaldiko kartela.